

XEDAPEN OROKORRAK

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

5520

AGINDUA, 2025eko abenduaren 23koa, Ogasun eta Finantzetako sailburuarena, energia berriztagarrien kanona likidatzeko eta autolikidatzeko ereduak onartzen dituen.

Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legearen VI. kapituluko 2. atalean energia berriztagarrien kanona sortu eta arautzen da, Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko zerga gisa.

Abenduaren 9ko 236/2025 Dekretuaren bidez, energia berriztagarrien kanonaren erregelamendua onartu zen. Erregelamendu honen 10. artikulua arabera, ogasunaren arloan eskumena duen saileko titularrari ahalmena ematen zaio energia berriztagarrien kanonaren autolikidazioak aurkezteko zerga-ereduak onartzeko, bai eta hura kudeatzeko beharrezkotzat jotzen diren beste batzuk.

Aipatutako 10. artikulua ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Autolikidazio- eta likidazio-ereduak.

1.– Energia berriztagarrien kanonaren autolikidazio-eredua onartzen da, agindu honen I. eranskinean agertzen dena.

2.– Energia berriztagarrien kanona likidatzeko eredua onartzen da, agindu honen II. eranskinean agertzen dena.

Energia berriztagarrien kanona kudeatzen duen organoak dagozkion behin-behineko eta behin betiko likidazioak eman ahal izango ditu, Tributuei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 23a.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
NOËL D'ANJOU OLAIZOLA.

I. ERANSKINA

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KANONA: AUTOLIKIDAZIOA
CANON DE ENERGÍAS RENOVABLES: AUTOLIQUIDACIÓN

EKITALDIA - EJERCICIO	
-----------------------	--

AITORPEN MOTA - TIPO DE DECLARACIÓN	
Osagarritzkoa/Ordezkoa - Complementaria/Sustitutiva	☐
Osatu edo ordezten duen (Auto)likidazioaren erregistro zenbakia - Número registro de (Auto)liquidación que se complementa o sustituye	

AUTOLIKIDAZIOA SORTZEN DUEN EGOERA - SITUACIÓN QUE GENERA LA AUTOLIQUIDACIÓN			
Urteko likidazioa - Liquidación anual	☐	Ekitaldia - Ejercicio	
Alta - Alta	☐	Parkea martxan jarri den data - Fecha de puesta en servicio del parque	
Aldaketa - Modificación	☐	Aldaketa martxan jarri den data (titulartasunaren aldaketaren data) - Fecha de puesta en servicio de modificación (fecha de modificación de titularidad)	
Behin betiko desagitea Desmantelamiento definitivo	☐	Desagite-data Fecha de desmantelamiento	

AURKEZLEA - PRESENTADOR/A	
Sozietate-izena edo izen-abizenak Razón social o nombre y apellidos	
Identifikazio fiskaleko zenbakia Número de identificación fiscal	

ZERGADUNA- CONTRIBUYENTE	
Sozietatearen izena edo izen-abizenak Razón social o nombre y apellidos	
Pertsona fisikoa/Pertsona juridikoa Persona física/Persona jurídica	---
Identifikazio fiskaleko zenbakia Número de identificación fiscal	
Zerga-egoitza Domicilio fiscal	

LOTURA - VINCULACIÓN	
Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan aitortzailearen edo hari lotutako pertsonen titulartasuneko beste ustategi, instalazio edo administrazio-baimen batzuk Otras explotaciones, instalaciones o autorizaciones administrativas cuya titularidad ostente la persona declarante o personas vinculadas a ésta en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi	
Lotura egotea - Existencia de vinculación	☐
Lotutako instalazioen datuak (erregistro-zenbakia) - Datos de instalaciones vinculadas (nº registro)	

INSTALAZIOARI BURUZKO DATUAK - DATOS SOBRE LA INSTALACIÓN	
Instalazioaren identifikazio-kodea - Código de identificación de la instalación	
Instalazioaren izena - Nombre de la instalación	
Euskadiko Parke Eoliko eta Fotovoltaikoen Erregistroko inskripzio-zenbakia Número de Inscripción en el Registro de Parques Eólicos y Fotovoltaicos de Euskadi	
Instalazio-mota - Tipo de instalación:	
Fotovoltaikoa - Fotovoltaica	☐
Eolikoa - Eólica	☐

AUTOLIKIDAZIOA - AUTOLIQUIDACIÓN

INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAK - INSTALACIONES FOTOVOLTAICAS			
Instalazioak eragindako azalera hektareatan Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan Hectáreas de superficie afectada por la instalación en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi	Tarifa Tarifa	Egun kop. Nº días	Zerga-kuota Cuota tributaria
GUZTIRA/TOTAL			

INSTALAZIO EOLIKOAK - INSTALACIONES EÓLICAS

[illegible]

ZERGA-KUOTA, GUZTIRA - TOTAL CUOTA TRIBUTARIA

Kentzekoa (kontzeptu, ekitaldi eta aldi beragatik aurretik ordaindutako kuotak) A deducir (cuotas ingresadas con anterioridad por el mismo concepto, ejercicio y periodo)	
--	--

Ordaindu beharreko zenbatekoa - Importe a ingresar	Itzuli beharreko zenbatekoa - Importe a devolver

Epez kanpoko aurkezpenaren erreklargua Recargo presentación extemporánea	
Berandutze-interesak - Intereses demora	
Zerga-zorra guztira - Total deuda tributaria	

Itzuli behar bada bakarrik: Banku-kontuaren zk. Exclusivamente si es a devolver: N° cuenta bancaria	
---	--

AUTOLIKIDAZIOA BETETZEKO ARGIBIDEAK

Ekitaldia. Aitorpenaren urte naturaleko lau zifrak jasoko dira.

Aitorpen mota.

Aitorpen osagarria/ordezkoa. Lauki hau markatuko da zergaldi bererako aurretik aurkeztutako beste autolikidazio bat aldatzen edo ordeztan duen autolikidazio bat denean, honako hauen ondorioz:

– Energia berriztagarrien kanonaren elementuei eragiten dieten aldaketak, zerga-zorra aldatzea dakartenak.

– Kanonari lotutako energia berriztagarrien instalazioak behin betiko desagitea.

– Aurreko autolikidazioan sartutako datu okerrak edo ez zuzenak, zuzendu beharrekoak.

Osatzen edo ordeztan den (auto)likidazio erregistro-zenbakia. Ordeztan den (auto)likidazioaren aurkezpenaren erregistro-zenbakia jasoko da. Autolikidazio osagarri/ordezko batek aurreko aitorpen bakar bat ordeztu dezake.

Autolikidazioa sortzen duen egoera.

Dagokion laukia markatuko da, autolikidazioa edo autolikidazio osagarria/ordezkoa aurkeztea eragiten duen egoeraren arabera:

– Urteko likidazioa. Ekitaldi natural bakoitzean aurkeztu behar den urteko autolikidazioa denean. Ekitaldia laukian zergaldiari dagokion urteko ekitaldia adieraziko da.

– Alta. Energia berriztagarrien instalazio berriak direnean. Parkea martxan jarri den data dagokion laukian.

– Aldaketa: Autolikidazio osagarria/ordezkoa aurkezten denean, zerga-zorra aldatzea dakarten energia berriztagarrien kanonaren elementuei eragiten dieten aldaketengatik. Dagokion laukian adieraziko da Aldaketa martxan jarri den data (hala badagokio, titulartasuna aldatzeko data).

– Behin betiko desagitea. Energia berriztagarrien instalazioak behin betiko desagiten direnean. Dagokion laukian parke eolikoa edo eguzki-parke fotovoltaiakoaren Desegite-data adieraziko da.

LOTURA. Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan aitortzailearen edo hari lotutako pertsonen titulartasuneko beste ustiategi instalazio edo administrazio-baimen batzuk.

Lotura egotea. Lauki hau markatuko da Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan beste ustiategi, instalazio edo administrazio-baimen batzuk daudenean, baldin eta horien titulartasuna deklaratzan duen pertsonak edo erakundeak edo horri lotutako pertsona edo erakundeek badute. Ondorio horietarako, lotutako pertsona edo erakundetzat hartuko dira zerga-araudian ezarritakoak. Era berean, ondorio horietarako, titulartasuna dagoela ulertuko da pertsona edo erakundea ustiategiaren titularra, instalazioaren titularra edo instalaziorako administrazio-baimenaren titularra denean.

Beste batzuei lotutako instalazioak direnean, zerga-zorra kalkulatzeko, titularraren instalazio-taldeko eta hari lotutako edo lotutako elementuak hartuko dira kontuan.

Lotutako instalazioen datuak (erregistro-zenbakia). Lotutako instalazioak Euskadiko Parke Eoliko eta Fotovoltaiakoen Erregistroan duen inskripzio-zenbakiarekin osatuko da, aurreko apartatuan azaldutako baldintzetan. Lotutako instalazio adina erregistro-zenbaki adieraziko dira.

INSTALAZIOARI BURUZKO DATUAK

Instalazioaren identifikazio-kodea, Instalazioaren izena eta Euskadiko Parke Eoliko eta Fotovoltaikoen Erregistroko inskripzio-zenbakia eremuak beteko dira, Euskadiko Parke Eoliko eta Fotovoltaikoen Erregistroan dauden datu berberekin.

AUTOLIKIDAZIOA

Energia berriztagarrien kanonaren elementuei eragiten dieten aldaketengatiko autolikidazio osagarrien/ordezkoen kasuan, zerga-zorra aldatzea eragiten badute, edo parkea behin betiko desegiten bada, lerro desberdinak jarriko dira urte naturala zatituta geratu den azpialdi bakoitzeko. Kasu horietan, azpialdi bakoitzaren zerga-kuota kalkulatzeko, hektarea-kopurua edo aerosorgailu-kopurua adieraziko dira, bai eta azpialdi horietako bakoitzaren zergaldiari dagokion urte naturaleko egun-kopurua ere.

a) Instalazio berrien kasuan, zergaldia instalazioa abian jartzen den egunetik dagokion urte naturaleko azken egunera arteko aldia izango da.

b) Zerga-kuota zehazten duten elementuak aldatzen dituzten instalazioen kasuan, zergaldi berri bat irekiko da aldaketak zerbitzuan jartzen diren egunetik eta dagokion urte naturaleko azken egunaren arte.

c) Instalazioak behin betiko desegitearen kasuan, zergaldia sortzen denetik parke eolikoa edo eguzki-parke fotovoltaikoa desegiten den egunera arteko aldia izango da.

INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAK

Instalazioak eragindako azalera hektareatan Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan. Instalazioak Euskal Autonomia Erkidegoan izango duen azaleraren hektarea kopurua adieraziko da.

Tarifa. Zergaldiari edo -azpialdiari dagokion karga-tasa eragindako azalera-hektareako, aplikatu beharreko araudiaren arabera.

Egun kopurua. Dagokion zergaldia/azpialdia osatzen duten egunen kopurua.

Zerga-kuota. Zerga-kuota honela kalkulatu da: instalazioak Euskal Autonomia Erkidegoan eragindako hektarea-kopurua bider dagokion tarifa.

Instalazio berrien kasuan, instalazioak Euskal Autonomia Erkidegoan eragindako azaleraren hektarea-kopurua tarifaz biderkatzearen emaitza jasoko da, zergaldiko egun kopuruari buruz kontsignatutako datua modu proportzionalen emanez. Zerga-zorra aldatzea dakarten energia berriztagarrien kanonaren elementuei eragiten dieten aldaketengatiko autolikidazio osagarriak/ordezkoak direnean, edo parkea behin betiko desegiten denean, kuota zergaldi/azpialdi bakoitzeko kalkulatu da, aldi/azpialdi horri dagokion egun kopuruarekiko proportzioan.

INSTALAZIO EOLIKOAK

Aerosorgailu bakoitzeko potentzia. Parke eolikoan instalatutako aerosorgailuen potentziari dagokion tarte adieraziko da. Hainbat lerro sartuko dira zergaldi/azpialdi bakoitzerako, potentzia-tartearen eta parke eolikoa osatzen duten aerosorgailuen kopuru-tartearen arabera.

Aerosorgailu kopurua. Potentzia-tarte eta aerosorgailuen kopuru-tarte bakoitzeko parke eolikoa osatzen duten aerosorgailuen kopurua adieraziko da.

Tarifa. Ezarpen-aldi/-azpialdi bakoitzari dagokion karga-tasa, aplikatzekoa den araudiaren arabera, potentzia-tartearen eta aerosorgailu-kopuruaren tartearen arabera.

Egun kopurua. Dagokion zergaldia/azpialdiaosatzen duten egunen kopurua.

Zerga-kuota. Zerga-kuota kalkulatzeko, aerosorgailuen kopurua dagokion tarifarekin biderkatuko da.

Instalazio berrien kasuan, aerosorgailuen kopurua tarifarekin biderkatzearen emaitza jasoko da, zergaldiko egun kopuru gisa jasotako datuaren proportzioan. Zerga-zorra aldatzea dakarten energia berriztagarrien kanonaren elementuei eragiten dieten aldaketengatiko autolikidazio osagarriak/ordezkoak direnean, edo parkea behin betiko desegiten denean, kuota zergaldi/azpialdi bakoitzeko kalkulatu da, aldi/azpialdi horri dagokion egun kopuruarekiko proportzioan.

Kentzekoa (kontzeptu, ekitaldi eta aldi beragaitik aurretik ordaindutako kuotak). (Auto)likidazio osagarrien edo ordezkoen kasuan, aurreko (auto)likidazioetan sartutako kuotaren/kuoten zenbateko osoa adieraziko da.

Ordaindu beharreko zenbatekoa/Itzuli beharreko zenbatekoa. Zerga-kuoten zenbateko osoaren eta aurretik ordaindutako kuoten arteko aldea adieraziko da.

Aurreko paragrafoaren arabera lortutako aldea negatiboa bada, banku-kontuaren zenbakia osatuko da banku-kontuaren zenbakia eremuan, non eskatzen baita Administrazio eskudunak itzulketa egin dezala.

II. ERANSKINA

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KANONA: BEHIN-BEHINEKO LIKIDAZIOA
CANON DE ENERGÍAS RENOVABLES: LIQUIDACIÓN PROVISIONAL

EKITALDIA - EJERCICIO	
-----------------------	--

AITORPEN MOTA - TIPO DE DECLARACIÓN	
Osagarrizkoa/Ordezkoa - Complementaria/Sustitutiva	☐
Osatu edo ordeztzen duen (Auto)likidazioaren erregistro zenbakia - Número registro de (Auto)liquidación que se complementa o sustituye	

BEHIN-BEHINEKO LIKIDAZIOAK SORTZEN DUEN EGOERA - SITUACIÓN QUE GENERA LA LIQUIDACIÓN PROVISIONAL			
Urteko likidazioa - Liquidación anual	☐	Ekitaldia - Ejercicio	
Alta - Alta	☐	Parkea martxan jarri den data - Fecha de puesta en servicio del parque	
Aldaketa - Modificación	☐	Aldaketa martxan jarri den data (titulartasunaren aldaketaren data) - Fecha de puesta en servicio de modificación (fecha de modificación de titularidad)	
Behin betiko desagitea Desmantelamiento definitivo	☐	Desagite-data Fecha de desmantelamiento	

AURKEZLEA - PRESENTADOR/A	
Sozietate-izena edo izen-abizenak Razón social o nombre y apellidos	
Identifikazio fiskaleko zenbakia Número de identificación fiscal	

ZERGADUNA- CONTRIBUYENTE	
Sozietatearen izena edo izen-abizenak Razón social o nombre y apellidos	
Pertsona fisikoa/Pertsona juridikoa Persona física/Persona jurídica	---
Identifikazio fiskaleko zenbakia Número de identificación fiscal	
Zerga-egoitza Domicilio fiscal	

LOTURA - VINCULACIÓN	
Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan aitortzailearen edo hari lotutako pertsonen titulartasuneko beste ustiategi, instalazio edo administrazio-baimen batzuk Otras explotaciones, instalaciones o autorizaciones administrativas cuya titularidad ostente la persona declarante o personas vinculadas a ésta en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi	
Lotura egotea - Existencia de vinculación	☐
Lotutako instalazioen datuak (erregistro-zenbakia) - Datos de instalaciones vinculadas (nº registro)	

INSTALAZIOARI BURUZKO DATUAK - DATOS SOBRE LA INSTALACIÓN	
Instalazioaren identifikazio-kodea - Código de identificación de la instalación	
Instalazioaren izena - Nombre de la instalación	
Euskadiko Parke Eoliko eta Fotovoltaikoen Erregistroko inskripzio-zenbakia Número de Inscripción en el Registro de Parques Eólicos y Fotovoltaicos de Euskadi	
Instalazio-mota - Tipo de instalación:	
Fotovoltaikoa - Fotovoltaica	☐
Eolikoa - Eólica	☐

2025eko abenduaren 29a, astelehena

BEHIN-BEHINEKO LIKIDAZIOA - LIQUIDACIÓN PROVISIONAL

FOTOVOLTAIKO INSTALAZIOAK - INSTALACIONES FOTOVOLTAICAS			
Instalazioak eragindako azalera hektareatan Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan Hectáreas de superficie afectada por la instalación en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi	Tarifa Tarifa	Egun kop. Nº días	Zerga-kuota Cuota tributaria
GUZTIRA/TOTAL			

INSTALAZIO EOLIKOAK - INSTALACIONES EÓLICAS				
Aerosorgailu bakoitzeko potentzia Potencia por aerogenerador	Aerosorg. kop. Nº Aerogen.	Tarifa Tarifa	Egun kop. Nº días	Zerga-kuota Cuota tributaria

GUZTIRA/TOTAL				

ZERGA-KUOTA, GUZTIRA - TOTAL CUOTA TRIBUTARIA	
Kentzekoa (kontzeptu, ekitaldi eta aldi beragatik aurretik ordaindutako kuotak) A deducir (cuotas ingresadas con anterioridad por el mismo concepto, ejercicio y periodo)	

Ordaindu beharreko zenbatekoa - Importe a ingresar	Itzuli beharreko zenbatekoa - Importe a devolver

Epez kanpoko aurkezpenaren erreargua Recargo presentación extemporánea	
Berandutze-interesak - Intereses demora	
Zerga-zorra guztira - Total deuda tributaria	

Itzuli behar bada bakarrik: Banku-kontuaren zk. Exclusivamente si es a devolver: Nº cuenta bancaria	
--	--